Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

*2020 ekitaldiko "Gipuzkoako ehun sozioekonomikoa eskualdeko ikuspegiaren ekarpenaren bidez suspertzeko programa"ren barruan egin zenuten laguntza eskaerari buruzko ebazpenari erantsita, laguntzari buruz aspektu zehatz batzuk gogorarazi nahi dizkizugu*

*1.- Erakunde onuradunen betekizun eta konpromisoak. (I. eranskina 12. oinarria)*

12.1. Erakunde onuradunek dirulaguntzak onartzeak martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako Erregelamenduak eta dirulaguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarriak ezarritako betebeharrak betetzea dakar, baita oinarri orokor hauetan nahiz deialdian ezartzen direnak ere.

12.2. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpenetan, argitalpenetan eta zabalkunde jardueretan, hala agintzen baitu 2018ko ekainaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruetan 2018-2022 aldirako onartzen duenak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 149 zk. 2018ko abuztuaren 3koa). Diruz lagundutako proiektuetako azken dokumentazioaren euskarazko bertsio bat eman beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuari.

12.3. Diruz lagundutako proiektuaren diseinu eta garapenean genero-ikuspegia gehitzea.

12.4. Diruz lagundutako proiektuan bermatzea komunikazio eta argitalpen guztietan hizkeraren erabilera ez sexista.

12.5. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak diruz lagundutako proiektu edo jardueren sustapen eta finantzazioari publizitate egokia ematea, Aldundiaren erakunde-irudiaren bidez zein finantzazio publikoari eta esku-hartze publikoaren helburuari buruzko aipamenen bidez, horma-irudi, inprimatutako material, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, eta beste edozein euskarritan, edo komunikabideetan egindako adierazpenen bidez.

12.6. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio baldintza guztietan parte hartu eta bete beharko dira; horien bitartez, jarduerak eta emaitzak eta inpaktuak neurtuko dira eraginkortasunetik eta eragimenetik.

*3.- Diru laguntzak ordaintzea. ( I. eranskina 14. oinarria.)*

14.1. Dirulaguntza proiektua amaitutakoan ordainduko da, 15. oinarrian aurreikusitako justifikazioa aurkeztu eta gero.

*Adjunto a la resolución a su solicitud de subvención correspondiente al programa de ayudas para la "Programa para reactivar el tejido socio-económico de Gipuzkoa a través de la contribución de la perspectiva comarcal" ejercicio 2020, queremos recordarle algunos aspectos acerca de la subvención concedida*

*1.- Obligaciones y compromisos de las entidades beneficiarias. ( Anexo I Base 12)*

12.1. La aceptación de las subvenciones por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su Reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril y demás normativa aplicable en materia de subvenciones y a las que se desprenden de las presentes bases y de la convocatoria.

12.2. Deberá garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones, en la edición de materiales y en las actividades de divulgación que se deriven de la realización del proyecto subvencionado, de acuerdo con lo dispuesto en el Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 26 de junio de 2018 que aprueba el plan de normalización del uso del euskera en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de sus organismos autónomos para el período 2018-2022 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 149 de 3 de agosto de 2018). Y todos los documentos finales de los proyectos subvencionados deberán entregar una versión en euskera al Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

12.3. Deberá incorporar la perspectiva de género en el diseño y desarrollo del proyecto subvencionado.

12.4. Deberá garantizar el uso no sexista del lenguaje en todo tipo de comunicaciones y publicaciones del proyecto subvencionado.

12.5. Dar la adecuada publicidad a la promoción y financiación del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa de los proyectos o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de su imagen institucional, así como de leyendas relativas a la financiación pública y al objeto del programa de intervención pública en carteles, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, y cualquier otro soporte o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

12.6. Deberán cumplirse y participar en las medidas de evaluación que establezca el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa para medir, desde la eficiencia y la eficacia, las actuaciones desarrolladas así como los resultados logrados e impactos alcanzados.

*3.- Pago de las subvenciones.( Anexo I Base 14ª)*

14.1. El abono de la subvención se realizará a la conclusión del proyecto previa presentación de la justificación prevista en la base 15.

14.2. Nolanahi ere,

— Laguntza programaren xedea beteta, modu kolaboratzailean antolatzea eta eskualdeko eragile guztiak inplikatuz, Covid-19ak eragindako krisiak arlo sozio-ekonomikoan eta eskualde mailan sortzen ari den inpaktuari erantzuna ematea, inpaktua gutxituz eta ekonomia, enplegua eta lehiakortasuna suspertuz.

— Covid-19ak sortutako testuinguruari berehalako erantzuna eskaini beharrak ekarri du entitate onuradunen ahaleginak krisi egoera arintzen fokalizatu direla denbora-une labur batean, eta horrek beste baliabide finantzarioak lortzeko ahaleginak minimizatu ditu.

— Covid-19ren eraginaren zabaltasuna eta sakontasuna dela eta, entitate onuradunetako pertsona gehienen funtzioak fokalizatu behar dira, inpaktua murrizteko.

— Tokiko administrazio publikoek pairatzen duten egoera ekonomiko larriak beren finantzazio/baliabideren esleipena zailtzen du jarduketak garatzeko.

— Entitateen tipologia –irabazi asmorik gabeko entitateak– esperientzia eta kaudimena dutenak jarduketa mota hauetako jarduketak garatzen baina ez dutenak finantza baliabideak sortzeko gaitasunik eta zailtasun finantzarioak dituztenak dirulaguntzaren xede diren helburuak garatzeko.

Horregatik guztiagatik, proiektuak garatzeko diru beharra ikusita eta aurreko esperientzietan proiektuak gauzatu diren modua kontuan izanda, aldez aurreko ordainketak egin daitezke, bermea aurkeztu beharrik gabe, diruz lagunduko diren jarduketei ekin ahal izateko beharrezko finantzazio gisa. Horretarako, entitate onuradunak aldez aurretik eskaera egin eta beharra justifikatuko du. Aurrerakin horiek ordaindu ahal izango dira, baldin eta aurrekontu baliabideak badaude, eta emandako dirulaguntza osoaren % 60 gainditzen ez badute, proiektua hasten denetik aurrera, eta behar bezala justifikatu beharko da hori.

(ikusi http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/eskualdeak)

14.3. Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, ezin izango da inolako ordainketarik egin erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko edota entitate laguntzaileekiko betebeharrak betetzen ez dituen bitartean.

Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak betebehar horiek betetzen dituela egiaztatuko du. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

14.2. No obstante,

— Atendida la finalidad del programa, articular de forma colaborativa e implicando a todos las y los agentes de la comarca para dar una respuesta al impacto que está generando en el ámbito socio-económico a nivel comarcal la crisis producida por la Covid-19, y minimizando su impacto y reactivando la economia, el empleo y la cohesión social.

— La necesidad de ofrecer una respuesta inmediata al contexto generado por la Covid-19, lo que está suponiendo, en un periodo de tiempo corto, enfocar todos los esfuerzos de las entidades beneficiarias a paliar la situación de crisis generada, lo que ha minimizado la obtención de otros recursos financieros.

— La amplitud y profundidad del impacto de la Covid-19 ha hecho que esté siendo necesario focalizar las funciones de la mayor parte de las personas de las entidades beneficiarias a minimizar este impacto.

— La precaria situación económico-financiera de las administraciones públicas de nivel local, dificulta la asignación de financiación/recursos de las misma para el desarrollo de las actuaciones.

— La tipología de entidades, entidades sin ánimo de lucro, con experiencia y solvencia en el desarrollo de esta tipología de actuaciones, pero sin capacidad para generar recursos financieros y con dificultades financieras para desarrollar los objetivos de la subvención.

Por todo ello, a la vista de la necesidad de proveer fondos que permitan desarrollar los proyectos y atendiendo al grado de ejecución de los proyectos en experiencias anteriores, se podrán realizar pagos anticipados, sin necesidad de garantías, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención, previa solicitud y justificación de la necesidad por parte de la entidad beneficiaria. Estos anticipos se podrán abonar siempre que existan disponibilidades presupuestarias y no superen el 60 % del total de la subvención concedida, a partir de la iniciación del proyecto, que deberá justificarse convenientemente.

(Ver http://www.gipuzkoa.eus/es/web/ekonomia/programas-y-ayudas/competitividad/eskualdeak)

14.3. Según prevé el artículo 32 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, no podrán realizarse pagos en tanto la entidad beneficiaria no se halle al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social y/o sus empresas colaboradoras.

El Servicio de Promoción Económica comprobará dicho cumplimiento. A tal fin, recabará los referidos datos directamente de los organismos emisores de los mismos; en caso de que ello no fuera posible, podrá requerirse excepcionalmente su aportación por la persona solicitante.

*4.- Diruz lagun daitezkeen kostuak. (I. eranskina 8. oinarria)*

8.1. Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean.

8.2. Barruko langileen kostuak izango dira kostu hautagarriak bakarrik, 35 €/ordu gehienez.

*5.- Diru laguntza zuritzea. ( I. eranskina 15 oinarria.)*

15.1. Kasu guztietan, diruz lagundutako jarduera bukatu duela zuritu beharko du erakunde onuradunak, baita diruz lagundutako jarduerak sortutako kostuak ere.

15.2. Dirulaguntzaren xedeko proiektua edo jarduera hilabeteko epearen barruan zuritu behar da, eta epe hori diruz lagundutako proiektu edo jarduera hori gauzatzeko epea, urteko deialdian ezarriko dena, amaitzen denetik (2021-04-30) kontatuko da.

15.3. Aurreko paragrafoan aipatu hilabeteko epearen barruan erakunde onuradunak kontu zurigarria aurkeztu behar du honako dokumentuekin:

— Jarduera memoria bat, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko. Zer jarduera burutu den eta zer emaitza izan den adierazi behar da. Proiektua gauzatzerakoan sortutako agiri eta txosten guztiak sartu behar dira.

— Memoria ekonomikoa, jardueren kostuak zuritzeko, honako eduki hau izango duena:

- Jardueraren kostuen zerrenda sailkatua. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera eman denean, gertatu diren desbideratzeak adieraziko dira. (Departamentuak emango duen eredua - (ikusi http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/eskualdeak)

- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili diren bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehetasunezko zerrenda, baita horien zenbatekoak eta jatorriak ere (Departamentuak emango duen eredua - (ikusi http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/eskualdeak).

- Nominak eta 190 eredua, eta LZN/KLZ, barruko langile gastuak justifikatzeko. Langile autonomoen kasuan, LZN/KLZ aurkeztu ordez, autonomoen araubideari dagozkion kotizazio agiriak.

- Orduen txostenak, erakunde eskatzaileetako pertsona parte-hartzaile bakoitzak proiektuari esleitutako arduraldi eta kostuen eguneko banakapena adierazita, garatutako fase eta eginkizunak oinarri hartuta. (Departamentuak emango duen

*4.- Costes subvencionables ( Anexo I Base 8ª)*

8.1. Se considerarán costes subvencionables aquellos costes que figurando recogidos en el presupuesto desglosado y detallado de la actividad que presente la entidad solicitante estén vinculados de manera indubitada al desarrollo de la misma.

8.2. Únicamente serán costes elegibles los costes del personal interno, hasta un valor máximo de 35 euros/hora.

*5.- Justificación de la subvención. (Anexo I Base 15.ª )*

15.1. En todos los casos, la entidad beneficiaria deberá justificar la realización de la actividad subvencionada, así como los costes generados por dicha actividad.

15.2. El proyecto o la actividad objeto de subvención deberá justificarse en el plazo de un mes a contar desde la finalización del periodo de ejecución del proyecto o actividad (30-04-2021) que se fijará en la convocatoria anual.

15.3. Dentro del plazo señalado en el párrafo anterior la entidad beneficiaria deberá presentar una cuenta justificativa con la siguiente documentación:

— Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. Se deben incluir todos los entregables e informes generados durante la ejecución del proyecto.

— Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

- Una relación clasificada de los costes de la actividad. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto, se indicarán las desviaciones acaecidas. (Según el formato que se proporcionará por el Departamento – Ver *http://www.gipuzkoa.eus/es/web/ekonomia/programas-y-ayudas/competitividad/eskualdeak*)

- Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia. (Según el formato que se proporcionará por el Departamento – Ver *http://www.gipuzkoa.eus/es/web/ekonomia/programas-y-ayudas/competitividad/eskualdeak*)

- Nóminas y modelo 190 y RNT/RLC para la justificación de gastos internos de personal. En el caso de trabajadores autónomos, en lugar de RNT/RLC, los boletines de cotización correspondientes al Régimen de Autónomos.

- Partes horarios con desglose diario de las dedicaciones y costes imputados al proyecto por todas y cada una de las personas que participan de las entidades solicitantes, en base

eredua - (ikusi http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/eskualdeak).

— Diruz lagundutako proiektuaren dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak.

15.4. Kostuak egiaztatzeko, jatorrizko agirien kopia elektroniko, informatiko edo telematikoa aurkeztuko da, betiere agiri horiek egiazkoak direla, osorik daudela eta gorde daitezkeela bermatzen bada.

15.5. Dirulaguntza zuritzeko ezarrita dagoen epea oinarri honetan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu gabe igarotzen bada, eskudun den organoak 15 eguneko epea eman ahalko dio erakunde onuradunari dokumentazio hori aurkezteko. Epe gehigarri hori zurigarriak aurkeztu gabe igarotzen bada, 18. oinarrian aurreikusten diren ondorioak aplikatuko dira.

15.6. Onuradunak 4 urtez gorde behar ditu derrigorrez dirulaguntzaren xedeko izan den jarduera egin izanaren zurigarriak, hala nola jasotako funtsa erabili izanaren egiaztagiriak. Zurigarri horiek guztiak aurkezteko ezarrita dagoen aldia amaitzen den une berean hasiko da kontatzen epe hori.

15.7. Oinarri honetako ataletan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren, organo instruktoreak egoki diren egiaztapenak egingo ditu.

Egiaztapen horien bidez ondorioztatuko balitz diruz lagundutako jardueraren kostua emandako dirulaguntza baino txikiagoa izan dela, dirulaguntza doitu egingo da. Dirulaguntza zuritzeko baldintza guztiak edo batzuk ez direla bete edo dirulaguntzaren xedea ez dela zati batean edo osoan bete ondorioztatzen bada, onuradunari jakinaraziko zaio hori, egindako egiaztapenen emaitzekin batera. Halaber, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdutzat jotzeko prozedurari ekingo zaio edo, kasua balitz, 17. oinarrian aurreikusten den prozedurari, emandako dirulaguntza osoa edo zati bat itzularazteko.

## 6.- Ebazpena aldatzea. (*I. eranskina 16. oinarria.)*

16.1. Diruz lagundutako jarduera burutzeko ezarri den epea amaitu baino lehen, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea eska dezake onuradunak, ezarritako epea luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko, diruz lagundutako aurrekontu sailak aldatzeko edota jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek onar daitezke beren arrazoia ustekabeko zirkunstantzietan oinarritzen denean edota jarduera burutzeko premiazkotzat jotzen direnean, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta besteren batzuk kaltetzen ez badira.

16.2. Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko

a las fases y tareas desarrolladas. (Según el formato que se proporcionará por el Departamento – Ver *http://www.gipuzkoa.eus/es/web/ekonomia/programas-y-ayudas/competitividad/eskualdeak*)

— La documentación gráfica, fotográfica o audiovisual del proyecto subvencionado.

15.4. La acreditación de los costes se efectuará mediante copia electrónica, informática o telemática de los documentos originales, siempre que queden garantizadas su autenticidad, integridad y conservación.

15.5. Transcurrido el plazo establecido para la justificación de la subvención sin que se hubiese presentado la documentación a que se refieren la presente base, el órgano competente podrá requerir a la entidad beneficiaria para que en el plazo de 15 días aporte la misma. La falta de presentación de la justificación, transcurrido este nuevo plazo, tendrá los efectos previstos en la base 18.ª

15.6. La entidad beneficiaria está obligada a conservar, durante un plazo de 4 años, los justificantes de la realización de la actividad que fundamenta la concesión de la subvención, así como la aplicación de los fondos percibidos. El citado plazo computará a partir del momento en que finalice el periodo establecido para presentar la citada justificación.

15.7. Una vez presentada la documentación señalada en los apartados de esta base, se realizará por el órgano instructor del expediente la correspondiente comprobación.

Si como resultado de dicha comprobación se dedujera que el coste subvencionable ha sido inferior a la subvención concedida, se reajustará la misma. En el caso de incumplimiento total o parcial de los requisitos establecidos para la justificación de la subvención o los fines para los que fue concedida la misma, se comunicará tal circunstancia a la persona interesada junto a los resultados de la comprobación realizada y se iniciará el procedimiento para declarar la pérdida del derecho de cobro de la ayuda o, en su caso, el procedimiento de reintegro total o parcial previsto en la base 17.ª

## 6. Base 16.ª Modificación de la resolución.

16.1. Las entidades beneficiarias podrán solicitar del órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido, modificación en los apartados presupuestarios subvencionados o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que podrán ser autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceras personas.

16.2. El Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural podrá modificar de oficio la resolución de concesión,

Departamentuak ofizioz aldatu ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpena, erakunde interesatuari aurrez entzunda eta fondoak aplikatu aurretik, dirulaguntza emateko unean kontuan izandako baldintzak aldatu direla-eta ezinezkoa edo zaila denean erdietsi nahi den interes publikoa lortzea eta entitate onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

16.3. Entitate onuradunak, dirulaguntzaren justifikazioan, aditzera ematen badu hainbat aldaketa gertatu dela dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan, aldaketa horietarako beharrezkoa zen baimen administratiboaren tramitera jotzeke, eta ikusten bada aldaketa horiek kontuan hartuz gero ebazpenaren emaitza agian beste bat izango zela, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak onartu ahal izango du aurkeztutako justifikazioa, baldin eta onartze horrek ez badu hirugarren pertsona batzuen eskubideak kaltetzea eragiten; dena den, horrek ez du onuraduna salbuesten Gipuzkoako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauaren arabera jar bide zaizkion zigorretatik.

7.- Proiektuak gauzatzeko data.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak diru laguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan, eta epe hauetan amaituko dira:

—2020ko apirilaren 30ean.

*INFORMAZIO GEHIAGO*

- “Gipuzkoako ehun sozioekonomikoa eskualdeko ikuspegiaren ekarpenaren bidez suspertzeko programa”ren 2020ko deialdia (2020ko ekainaren 23ko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. GAO 121 zk. 20120o ekainaren 29an).
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko, 3/2007 FORU ARAUA. (G.A.O. 2007ko apirilak 12, 71 zk.)
- Apirilaren 29ko 24/2008 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duena. . (G.A.O. 2008ko maiatzak 6, 85 zk.).

previa audiencia de la entidad interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la entidad beneficiaria.

16.3. Cuando la entidad beneficiaria de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma, que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución conforme a lo indicado, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceras personas, y sin que ello exima a la entidad beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

7.- Fecha de ejecución de los proyectos.

Las actuaciones objeto de subvención deben iniciarse con posterioridad a la solicitud de la ayuda, dentro del año natural, y deberán concluir para:

— El 30 de abril de 2021

*MAS INFORMACION*

- Convocatoria 2020 del “Programa para reactivar el tejido socio-económico de Gipuzkoa a través de la contribución de la perspectiva comarcal” (Consejo de Gobierno Foral de 23 de junio de 2020. BOG: nº 121 de 29 de junio de 2020)
- NORMA FORAL 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa (B.O.G. Nº 71 de 12 de abril de 2007)
- DECRETO FORAL 24/2008, de 29 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. (B.O.G. Nº 85 de 6 de mayo de 2008).